

1. SARRERA

Informazioaren garaian bizi omen gara, komunikazioaren aroa omen da gurea. Komunikabideek izugarrizko pisua hartu dute eta teknologia berriek gure bizimodua errotik aldatu dute. Komunikabideen eragin sozial eta kulturalaren inguruko teoria ezberdinak badaude ere, herritarren informazio, pentsakera eta ikusmoldea baldintzatzen dutela nahiko nabaria da.

Ildo honetan, esan dezakegu komunikabideen eragin kulturala hezkuntza sistemarekin alderatu dezakegula. Egia da hezkuntza sistemak herritarren pentsakera moldatzeko daukan gaitasuna asko mitifikatu dela, eta komenigarria da bere neurrian kokatzea. Azken batean, nola uler daiteke, bestela, eskola frankistan ikasi zuen belaunaldian gehiengo soziologikoki abertzalea izatea? Argi dago, hezkuntza sistemarekin batera, bestelako aldagaiak badirela pertsonaren nortasuna eratzeke orduan (familia, kalea). Baina argi dago, halere, hezkuntza sistemak eragiteko gaitasun handia izan duela.

Bada, gaur egun, esan dugun bezala, komunikabideen eragiteko gaitasuna hezkuntza sistemarekin konpara daiteke. Kontutan izan, maila koantitatibo soilean, haur/gazte batek ordu kopuru gehiago igarotzen duela urtean telebistaren aurrean, ikasgelan baino. Maila koalitiboan, berriz, eztaba da irudiek duten eragiteko gaitasuna, eta irudien munduari dagokionez hezkuntza sistema komunikabideen oso atzetik doa argi eta garbi.

Ildo honetan, bi funtsezko eztabaida eman behar dugu, komunikabideen esparruari dagokionean, Euskal Herrian:

- Lehenik eta behin, komunikabideen inguruko hausnarketa egin beharra daukagu: zer nolako ereduak bultzatzen ari diren; zer eragin izaten ari diren belaunaldi berrien heziketari nahiz oro har gizartearen kulturari dagokionean; eta zer nolako irizpideak jorratu beharko lituzketen komunikazio osasungarria bultzatu eta funtzio hezitzailea betetzeko. Euskal Curriculumari buruz ari garelarik, euskal komunikabideek zein rol jokatu beharko luketen bere garapenean.
- Bigarrenik, hezkuntza sistemak komunikazioaren, komunikabideen eta teknologia berrien afera nola jorratuko duen, zein kontzeptu, abilezi eta balore sustatuko dituen ikasleen artean. Hau da, Euskal Curriculumean zein irizpide landuko dituen afera horiei dagokionean.

Asko idatzi da komunikabideen inguruan, orokorrean, baina gutxi idatzi da aipatutako bi eztabaida horiei dagokionean. Agiri hau, beraz, beharrezkoa den eztabaida sozial baterako oinarriak jartzeko saiakera bat besterik ez da.

2. KOMUNIKABIDEAK ETA HEZKUNTZA SISTEMA

Komunikazioa eta komunikabideak

Komunikazioa hitza egunean hamaika aldiz entzuten dugu, baina zer da?

- Komunikazioa eskubidea da.
- Komunikazioak bi norabide ditu.
- Komunikazioa partaideen elkar ezagutzan oinarritzen da.
- Komunikazioa kultura eta jendarte sortzailea da.

Komunikabideak, teorian, komunikazio-bideak dira. Horrela ote dira praktikan? Masa komunikabideak mezuak bidaltzeko euskarriak dira, norabide bakarreko mezuak, itzulerarik gabeko

mezuak bidaltzeko tresna boteretsuak. Beraz, esan dezakegu komunikabide gehienak ez direla komunikazio-bideak. Aitzitik, komunikazio tresnak izan beharrean “komunikazio lapurrak” dira, gure espazio komunikatiboak lapurtzen dute, komunikazio faltsua eskaintzen digute, kontsumo hutsean oinarritutako komunikazioa sortzen dute, beraiek eman eta gainontzekook jaso... Gazteak honetan kaltetuenak dira, komunikabideen eragina sakonagoa.

Komunikabideak eta gazteak

Komunikabideak gure eguneroko bizitzan txertaturik daude, naturaltasun osoz kontsumitzen ditugula esan dezakegu, nahiz eta horixe ez den beste kontsumo soil bat. Hedabideen erabilera onerako edo txarrerako izan liteke, eta biak aldi berean. Komunikabideak kontsumo soil batetik ulertzen baldin baditugu, txarrerako izango da. Zertarako diren, zer esaten duten, nola esaten duten eta abarrak aztertzeko gaitasuna baldin badugu eta etengabeen praktikan jartzen badugu, hauen erabilera onuragarria izan daiteke.

Gaur egun, gazteek komunikabideak kontsumitzen dituzte, modu berezian kontsumitzen dituzte eta helburu jakin batzuetarako kontsumitzen dituzte. Gehiegi sakondu gabe, honako fenomeno hauek konstatatu behar ditugu:

- Telebistaren gehiegizko kontsumoa. Infomatzeko baino, aisialdirako kontsumitzen dute gazteek, “denbora pasatzeko” askotan. Gazte batek egunean 24 orduetatik 4 igarotzen du telebista aurrean. Urteko konputo orokorra egingo bagenu, 1400 ordu inguru direla ikus dezakegu, eskola orduen gainetik dagola konturatzen gara, beraz. Gazteak sinestesia maltzur moduko bat bizi du telebistarekin: irudiarekin liluraturik, errealitatea eta dramatizazioa nahasten ditu.
- Teknologi berrien eta interneten garapena. Gazteen artean kontsumoa ikaragarri hazten ari da. Teknologi komunikatiboak inoiz baino eskuragarriago dituzte era berean. Gazteen artean ekipamendu teknologiko oso altua da. %88ak telefono mugikorra du. Baina horrek ez du esan nahi komunikatzeko aukerak inoiz baino handiagoak direnik, hezkuntza komunikatiboa hutsaren parekoa baita.
- Bestelako medioan kontsumoaren desagerpena, prentsa idatzia batik bat. Irratiren kontsumoa musika hutsera gerturaten da.

Komunikabideak eta hezkuntza

Oro har esan dezakegu ez dagoela medioen partetik helburu hezitzaileerik. Herri ekimenez sortutako hedabideen kasuan izan ezik, helburu ekonomikoa gailentzen da, telebistan gehien bat. Eta telebista da hedabide kontsumituena.

Telebista interes politiko edo/eta ekonomikoen zerbitzura dago argi eta garbi. Ez dago Telebista hezitzaileerik, ez dute helburu hezitzaileerik (guk hezitzailea ulertzen dugu moduan behinik behin). Ildo honetan, hausnarketa berezia egin beharko litzateke telebista publikoaren paperari dagokionez, zein den bere erantzunkizuna arlo honetan eta zein bitarteko jarri beharko litzuzkeen heziketaren aferari erantzuteko (herri ikuspegia, programazioa definitzeko metodologia jakin bat...).

Komunikabideetako batzuk, batez ere irrati eta egunkariak, ikasleen bisitak antolatzen dituzte beren erredakzioetara. Ekimen interesgarriak izan daitezke hauek, baina horiek burutzeak ez du esan nahi komunikabide hauek plangintza hezitzaile garatu bat dagoenik.

Euskal komunikabideek hausnartu beharko lukete zer nolako eragina izaten ari diren gazteen eta oro har herritarren artean eta zein papera jokatu nahi duten. Gure iritziz, ikuspegi hezitzailea jorratzen hasi beharko lukete.

Hezkuntza sistema eta komunikabideak

Komunikabideen paper hezitzaile edo ez hezitzaileaz ez du hezkuntza sistemak hausnarketa handiegirik egiten. Normalean, komunikabide ezberdinen erabilera txertatzen da hezkuntza prozesuan, ikasgelako jarduera bideratzeko soportelagun moduan. Esaterako, jarduera jakin bat burutzeko prentsako berri bat hartu daiteke, bideo bat ikusi edo beharrezkoa den informazioa interneten bilatu. Era honetan, komunikazio soportelagunak ezagutzeko parada dute ikasleek. Interneten kasuan,

herritarrek bitarteko berri hau teknikoki menperatu dezaten interes handia dago instituzioen aldetik, eta eskolek teknologia berrien erabilera integratu behar dutela esaten da behin eta berriz.

Alabaina, hezkuntza sistemak ez da mugatu behar komunikabideen alderdi teknikoa erakustera, hedabideen funtsa ere irakatsi beharko luke. Une honetan, salbuespenak salbuespen, gazteek ez dute kultura komunikatiborik jasotzen, esan liteke ikastetxeetan ez zaiela honen inguruko heziketarik eskaintzen. Hitzak irakurtzen ikasten dute, baina ikus entzunezkoen hizkuntzan analfabetoak sortzen ditugu, irizpiderik ez duten pertsonak (zer eta zergatik ikusten ari diren hori aztertzeke gaitasuna) eta, beraz, jaso besterik egiten ez dutenak. Zer diren tresna komunikatibo horiek, nola egiten diren, horien erabilera teknikoak, balore subjektiboak, esaten dutena kritikatzeko gaitasuna, asimilazio gaitasuna... Asko da hezi behar dena, bestela medioen morroitzara kondenatzen ditugu ondorengo belaunaldiak.

Hezkuntza sistema beraren sinesgarritasuna bera dago uneotan auzitan. Izan ere, ikasgela barruan erakusten den "errealitatea" eta kanpoan, mundu mediatikoan, dagoen "errealitatea" ez datoz bat. Eskolak kanpoko errealitate horri buruz ez badu hitz egiten, gazteek "errealitatetzat" definitzen duten horri ezikusiarrena egiten badio, eskolaren mezuak indarra eta balioa galtzen du.

Ahula da komunikazioaren gaineko heziketa gazteen artean. Ikuspuntu horretatik begiratuta, ondo legoke hezkuntza sistema arautuan ikasketa bereziak txertatzea komunikazioaren mundua ulergarriago izan dakion gazteari, liluratik haratago. Esan bezala, uneotan kezka bakarra teknika ezagutzea da eta, hori abiapuntua izan badaiteke ere, ez da nahikoa.

Jendartea, komunikabideak, komunikazioa

Alfabetatzea modu dinamiko batean ulertu behar dugu. XIX. mendeak pertsona bat alfabetatutzat hartzeko zeuden irizpideak eta "mundu modernoan" eskatzen zaizkionak ez datoz bat. Une honetan, alfabetatuari ez zaio eskatzen hitzak ezagutzea bakarrik. Mundu modernoak errotorika eta argudioa eskatzen dizkio. Poesia ulertzea, metafora ulertzea, elipsiaren balioa harrapatzea... horiek guztiak beharrezkoak ditu herritarrak mezu konplexu modernoak ulertzeko. Jendarte-komunikazioaren mezuen dekodifikazio zuzena, naturala ez da nahikoa. Irakurketa denotatiboak ez dira nahiko, konnotatiboak ere behar ditu herritarrak mezu mediatikoa ulertzeko. Nola bestela, adibidez, publizitatea ulertu?

Jendarte-komunikazioa saihestezina da gaur mundu industrializatu, garatu eta bisual honetan. Zentzu honetan, medio eta mezuekiko trebakuntza ezinbestekoa da.

3.KOMUNIKABIDEA ETA EUSKAL CURRICULUMA

Nola izan behar da hedabideen lanketa hezkuntza sisteman?

Zer heziketa komunikatibo ahalbideratu behar du hezkuntzak?

Teknikak ezagutzea nahikoa ez bada, zer gehiago landu behar da ikasgelan?

Hedabideen egungo kontsumitzaileak dira ikasleak, baina etorkizunean ere izango dira, nola hezi?

Nola hezi hedabideen kontsumo hipnotiko batetatik, kontsumo burujabe batetara igarotzeko?

Curriculumean, hainbat arlo landu beharko dira, zeintzuk?

Galdera potoloak dira eta horiei erantzuna emateko hausnarketa sakona egin beharko litzateke, bai komunikabideetan baita hezkuntza esparruan ere. Euskal Curriculumaren sorrera prozesuan ari garela, egitasmo horrek komunikazioaren eta komunikabideen esparruari dagokionez landu beharko litzukeen kontzeptu, abilezi eta balioak zehazten saiatuko gara.

KONTZEPTUAK

- Zer hedabide dauden, nola funtzionatzen duten.
- Zer interes dauden hedabide hauen atzean (zer enpresa...)
- Masa komunikabideak egunerokotasunarekin lotutako informazioa zabaltzea helburu duten enpresa pribatu nahiz publikoak izan daitezke eta honetarako teknologia berriei esker ditugun euskarriak erabiltzen dituzte. Informazioa zabaltzeaz gain, jendarteari munduaren ikuspegi bat

ematen diote eta ikuspegi horretatik munduaren argazki bat bideratzen dute, eta munduan gertatzen ari denaren ezagutza. Beren ikuspegiaren arabera mundu ikuskera bideratzen dute.

- Baina ez dute munduan gertatzen dena bakarrik zablatzen, ez dute informazioa soilik helburu; jarrerak eta baloreak ere zabaltzen dituzte.
- Masa komunikabideak mezuak bidaltzeko euskarriak dira, norabide bakarrerko mezuak, itzulerarik gabeko mezuak bidaltzeko tresna boteretsuak dira.
- Mundu mailako eta gertuko komunikabideen inguruan:
 - komunikabideen kontzentrazioa;
 - estatuen kontrola;
 - komunikazio enpresak
- Euskal Herriko panorama informatiboa/komunikatiboa
- Zer bestelako hedabide daude, masa hedabideez gain. Bestelako helburuak eta ikuspegia duten komunikabideak: herri komunikabideak, gazteek berauek sortutakoak...

ABILEZIAK

(zer egiten jakin behar duten)

- Dekodifikatzen jakin behar da, nola?
- Ikasleek ideiak transmititzeko gaitasuna izan behar dute. Komunikazio zuzena zein zeharkakoa menderatu behar du pertsona orok
- Telebista jaun eta jabe izanik, audiobisualak ekoizten irakatsi behar da; medioa menderatu eta eskuragarri izanez, medio erabili dezakegu.
- Teknologi berriak eta internet, erabilera kontziente batetarako heziketa.
- Hedabide ezberdinen prozeduren hezagutza (adb. paperezkoan, notizi nola formulatu, garapen, paperera, rotatiba....)
- Norberaren komunikazio gaitasuna garatu, medioak eskura ditugu: zeintzuk?, nola?
- Ikastetxeek eskaini beharreko medio eta azpiegiturak.

BALOREAK

- Balore eskala propioa izatea ezinbestekoa da.
- Benetako komunikazioaren balorea barneratu (paraleloa, bide anitza...) ez kontsumo hutsekoa...
- Komunikazioak komunitatea eratzen du, berau barneratu.
- Iritzi propioa izateko gaitasuna eta berau garatzeko ezinbestekotasuna. Kritikotasuna.